

«Ez naiz artista politikoa»

Eta eskulturak bere eskuekin landu zuen eskulturgilea.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zarautz, 1981. Jaio zinen garaia eta lekua.

Niretzat Zarautz aita da, eta aitarekin zerikusia duen guztia. Ama bilbotarra da, eta amarenak beste erreferentzia mota batzuk dira niretzat. Zarautz etxera bueltatzea da, lasai eta seguru sentitzea edozein lekutan, baina lasaitasunak eta segurtasunak ez didate gehiegi ematen. Hamabost egunez gustura egoten naiz, baina gero itota sentitzen naiz. Eta itsasoa, Zarautz itsasoa ere bada. Eta garaia... 80ko hamarkadan jaio nintzen, baina nik 90ekoa bizi izan nuen. Badaude erreferentzia batzuk nire garaia dagozkionak. Gogoan dut Zarautzen tren geltokia okupatu zuten lehen aldia. Gainera, orduko okupak beste zerbait ziren: oso punkiak ziren... Akordatzen naiz bazela grazia handia egiten zidan koadrila bat. Bazen Maite izeneko neska bat titi artean arratoi bat eramaten zuena. Eta guk txikitari arratoi harekin jolasten genuen! Garai hartan pauta guztiekin hautsi behar zen, ordura arte bizi izandako guztiak ez zuen balio eta zerbait berria asmatu behar zen. Bestalde, aita eta ama dira niretzat erreferente garbiak. Troskistak ziren, eta nire heziketa ere halakoa izan da: oso irekia, oso permisiboa, baina baloreekin oso gogorra.

Nola bizi dituzu zure espazioa eta denbora?

Nik uste espazioak denbora aldatzen duela. Zarautzek, esaterako, denbora mota bat du: Zarautzen poliki doa denbora. Bilbon bizi naizenean denbora askoz azkarrago doa, eta ni eta nire pentsamenduak ere bai. Uste dut espazioak asko eragiten duela denboran. Bestalde, niretzat espazioa eskultura da eta denbora, bideoa. Agian, horregatik erabiltzen ditut bi gauzak. Denborarekin lan egin nahi dudanean bideoa erabiltzen dut eta espazioarekin lan egin nahi dudanean, eskultura. Argazkia ere denbora da. Akaso, horregatik ez zait margotzea gustatzen, margotzen dudanean ez daukadalako ez espaziorik ez

denborarik. Existitu existitzen dira, baina ez dira medioaren hizkuntza propioa.

Artistarentzat garrantzitsua da bizi den espazioa?

Nik uste baietz. Nik aukeratu egin dut Bilbo, daukan erritmoagatik. Nik erritmoa behar dut. Inguratzen nauen guztia makal badao ni ere makal noa. Eta hori obran nabaritu egiten da. Gainera, Bilbora itzuli nintzenetik mugitzen diren eskulturak egiten ari naiz. Agian eskulturetan bi dimentsio horiek, espazioa eta denbora, jasotzeko ahaleginean.

Zu Bilbon bizi zara. Zu Euskal Herrian ere bizi zara. Horrek ere badu eraginik zure obran?

Ez dut uste hemen egiten den arte guztia euskal artea denik, erreferenteak mundu mailakoak baitira. Baina garai batean haustura handia eman zuen hemen sortzen zen arteak, batez ere eskulturetan, eta guk hortik edan dugu. Guretzat askoz garrantzitsuagoa da instalazioetan eta lanetan esperimentalak izatea, bila aritzea, irudi totalitario eta handia ematea baino. Beste fakultate batzuetan irudi unitarioa eta distira propioa duten piezak egiten erakusten dute, eta hemen ez da horretara hainbeste jotzen. Agian, egiteko era xumeagoa da, estrukturalagoa, eta emaitza ez da horren garbia eta distiratsua, baina funtsa du, eta errotik datorren zerbait dela uste dut. Azken batean, kulturak egiten du pentsatzeko era, eta pentsatzeko era artean islatzen da. Oteizarentzat garbia da hori: harentzat euskaldunok

Nortasun agiria

Zuhar Iruretagoiena Labeaga Zarautzen jaio zen 1981ean. Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon, eta arte digitaletan masterra Bartzelonan. Bartzelonatik Bilbora itzuli, doktoretzan matrikulatu eta apustu egitea erabaki zuen: artista izango zen. Gaur egun Bilbon bizi da, La Peña auzoan, eta Santutxun du estudioa beste hiru artistarekin batera. Eskultura du adierazpide maiteena, baina argazkilaritza eta bideogintza ere erabiltzen ditu. Hainbat sari garrantzitsu jaso du azken urteotan: Ertibil eta Generaciones 2008 sariak, besteak beste.

Zuhar Iruretagoiena

• PERTSONAIA •



☉ Zuhar Iruretagoiena

burua egituratzeko eta pentsamendua egituratzeko dugun era desberdina da, hizkuntzagatik. Eta Oteizarengandik edan zuten Txomin Badiolak, Angel Badosek... Euskal Eskultura Berria deritzana sortu zuten, eta hori haustura garbia izan zen estatu mailan egiten zenarekin.

Gatazka politikoak eragiten al ditu artista gisa?

Gatazka blokeoa da beti, geldialdia. Eta blokeo hori gizartean dago, eta bere kulturaren ere bai. Eta horrek gauza askotan eragiten digu. Esaterako, ez gara oso irekiak kanpotik datorrenarekin. Oraindik oso itxita jarraitzen dugu, eta gainera oso sendo gure pentsaeran, “kanpokoak ez du hemengoak bezainbeste balio” horretan. Valentzian eta Madrilen, adibidez, askoz ere irekiagoak dira. Jakina, horrek badu beste kontrapuntu bat ere. Ez dakit haien berezitasunekin jabetzen ote diren. Ez dakit berezitasunik sentitzen duten, guk bai, kulturako alor guztietan. Jabetzen gara arte euskalduna badagoela, literatura euskalduna badagoela, eta gainera desberdina dela egiteko eran, ez bakarrik hizkuntzan. Gainerakoan, nik ez dut sekula gatazka gai gisa hartu, ezta hartuko ere. Ze nik zerbaiti buruz hitz egin nahiko banu, hitz egingo nuke, baina niretzat artea ez da hori, artea ez da pentsamendu bat hiru dimentsiotara ekartzea. Hala balitz artea egiteak ez luke zentzurik. Niretzat mundu sentiblearen, intuitiboaren eta arrazionalaren elkartzeko gunea da artea. Egia da aretoak guztiz politizatuta daudela; lortzen ditugun beka guztiak politikoei emanen dituztela; sariak, banketxeek... Beraz, zeharka jakina eragiten duela, baina lanean zuzen-zuzenean ez. Ni ez naiz artista politikoa.

“Euskarak ez du ‘hogar’ kontzeptua adierazteko hitzik”, irakurri dizut.

Edo ni naiz, agian, euskararen ‘hogar’ hitza aurkitzen ez duena. Obra baten harira aipatu nuen hori, esan nahi nuena ez baitzen ‘etxea’. *Tarte* izena du piezak. Metakrilatozko bi plantxa handi dira, parez pare daudenak: batean ate bat dago eta bestean bi leiho. Baina bi plantxak etengabe mugimenduan daudenez ez da sekula barne espaziorik sortzen, eta beraz ez da babesentsaziorik sortzen, ezin da babeslekurik sortu bi hormen artean. Nire bizitzarekin zerikusia du. Ni beti mugimenduan nabil, alde batetik bestera, eta etengabeko mugimenduan egoteak ez dit nire lekua bilatzen uzten. Bilatu dudanerako hanka egin behar dut. Nire ‘hogar’ delakoa motxilan balego bezala. Nahiz eta batzuek ikaragarritzko hipotekak ordaintzen dituzten etxeak erosteko...

Zuk ere beharko duzu dirua bizilekuaren alokairua, estudioarena, materialarena... ordaintzeko. Nola moldatzen zara?

Ekoiaren dagokionez orain arte zorte handia izan dut, bekak jaso izan ditut eta ekoiaren aldetik ezin naiz kexatu, beti ordaindu izan didate. Piezekin ez dut dirua galdu. Bizitzeko beste gauza bat da, arteak oraindik ez baitit bizitzeko ematen. Bai, sariak jaso ditut, eta horrek laguntzen du, baina niretzat artetik datorren dirua arterako da. Inbertitu egiten dut. Beraz, nire bizitza beste era batera konpondu beharreko zerbait da. Iaz eskola batean plastikako klaseak eman nituen; Ikertze-rekin Tabakalerarentzako kolaborazioak egiten ditut... Baina urtarrilera arte arteaz gain beste lanik ez egitea erabaki dut, estudioa etorriko naiz egunero. Bi hilabete daramatzat produzitu gabe, azkeneko erakusketatik, haustura hori behar bainuen. Beraz, urritik otsailera, ez dakit nola, baina estudioan bakarrik arituko naiz. Sorkuntza lanetan ari ez naizenez prostituitzen ari naiz, horrela sentitzen dut, eta estudioa etorri gabe bi hilabete daramatzat gaizki sentitzen hasten naiz. Behar dut. Niretzat beste lan motak prostituzioa dira: ez dut gorputza saltzen, baina bai burua.

Familiak, iraganak, memoriak, loturek... zer pisu daukate artea egiterakoan?

Azkenengo erakusketan pisu handia. Jende askok pentsatu du nire aitari eskainia zegoela, eta ez. Egia da nire aita hil berria zela eta hori bizitzen ari nintzela, eta hori islatu egin zen obran. Aita azaltzen zen irudi batzuk aukeratu nituen, baina erakusketako gaia ez zen aita. Erakusketak esfortzuarik buruzkoa zen, nire esfortzuarik buruzkoa, giza-kion esfortzuarik buruzkoa. Eta baita arrastaka daramagun pentsaera judu-kristauari buruzkoa ere, bai baitirudi sufrirituz eta ahalegin handiz lortutako gauzek balio handiagoa dutela. Hori oso barneratuta daukagu, eta askotan zentzugabeak dira. Baina nire lanei ez diet gairik jartzen. Nik gauza errealekin egiten dut lan: daukadan piezak nola egituratu, nola zentzua eman... eraikuntza horrek bere indarra eta bere zentzu propioa eduki dezan, ez izateko, besterik gabe, zerbaiten ilustrazioa. Nik ez dut ilustrazioa egin nahi.

Argazkietan ere ez duzu edozein lekutan atera nahi.

Nik uste bi gauza bereizi behar direla: non kokatu nahi duzun zure lana eta non kokatu nahi duzun zeure burua. Ni pertsona bat naiz, irudi bat naiz, eta hedabideek hori erabili egiten dute. Egunkarian kultura diputatuari besotik helduta eta irribarrez ateratzen banaiz, nola irakurtzen da hori? Errekaldeko testuinguruan, esan nahi dut. Artista baten lana zentsuratu zuten, zeukan eduki politikogatik. Ni

eta uste dute gai direla hori zuzentzeko, eta horrela gertatzen dira gertatzen direnak.

Artistak probokatzailea izan behar du? Behar? Ez. Eta probokatzailea zertan? Gaian? Gaian probokatzailea izatea oso erraza da. Egin ezazu prostitutei buruzko zerbait eta seguru funtzionatuko duela. Baina nik uste dut askoz interesgarriagoa dela egiteko eran probokatzaile izatea.

Gizarte lehiakorrean bizi gara. Uztartu daitezke artea eta lehia?

Ni lehiatu egiten naiz, sistema hala egituratuta dagoelako. Beka bakarrerako 400 artista aurkezten gara. Beraz, lehia existitzen da, baina saiatzen naiz garrantzirik ez ematen, ez dut horretan sartu nahi. Denok saiatzen gara bekak eta sariak lortzen, baina lehia hori benetan serio hartzeak ez du inongo onurarik ekartzen. Baina, astero, estudioko lanaz gain, beste hainbeste ordu sartu behar izaten ditugu lehian parte hartzeko: dosierak eta katalogoak prestatzen, arauak irakurtzen, bidaltzen... Eta horrek izugarri denbora eta energia pila kentzen du, baina onartu egin behar dugu gure lanaren parte dela. Igual, gustatzen ez zaigun zatia, baina lanaren parte.

“Artisten bizimodua ez da sprint-a, maratoia baizik”, irakurri dizut. Bidean asko nekutzen dira?

Bai, baina apustu kontua dela uste dut. Nik ez dut inoiz bide hau uzteko tentaziorik izan, oso argi izan dut beti. Lehentasun kontua da. Guztiz argi daukat zeri ematen diodan lehentasuna. Artea izeneko zerbaitekin maiteminduta nago. Nire aukera egina dago. Eta egia da gauza asko utzi ditudala eta utzi beharko ditudala bidean. Agian, amatasuna edo bikote harremanak ere bai... Gauza asko. Oso kontziente naiz horretaz guztiaz, baina nik hau nahi dut. Nik artea nahi dut.

Espresibide asko probatu dituzu. Hala ere eskulturak betetzen zaitu gehien. Zer ematen dizu eskulturak adierazpide moduan?

Eskulturak sentsazio fisikoa ematen dit. Pinturak eta argazkiak ere eman dezakete sentsazio fisikoa, baina ikusmenari lotua, ez besterik. Informazio guztia begietatik jasotzen da. Eskultura, daukan dimentsioaren arabera, era batera edo bestera sentitzen da. Daukan pisuaren arabera ere desberdina da. Niretzat erreala-goa da eskultura batekin lan egitea irudi batekin

diputatuari besotik helduta azaltzen banaiz badirudi artista gazteok onartu egiten dugula gertatu dena. Zentzu horretan nire zalantzak. Ondotxo baitzekiten erabilpen hori egin nahi zutela. Orain arte ez da sekula prentsaurrekorik egin Errekalden, juxtu iaz egin ziren, juxtu iaz deitu ziguten artista gazteoi prentsan ateratzeko, beren irudia garbitzeko eta itxura egiteko artista gazteak eurekin daudela. Argazki horrekin onarpena ematen diezu. Kulturako alor guztietan gertatzen da berdin: sobratzen zaizkien apurrak ematen dizkigute, eta horrekin kontzientzia guztiz garbitzen dute, kulturaren inbertitzen dutela esanez. Eta sakonki aztertuz gero administrazioak kulturalki darman politika... hutsune asko ditu. Gainera, administrazioarekiko dependentzia handia bizi dugu artistok, haien politika kulturalen menpe bizi gara neurri batean: bekak haiek kontrolatzen dituzte, erakustokiak ere bai. Ni politika egiten saiatuko banintz desastre bat litzateke, ez baitakit politikaz. Baina haiek ere ez dakite ezer kulturaz, ez dakite ezer arteaz,

AZKEN HITZA

Liseriketa

“Merkatua gizartea da, eta gizarteak dena irensteko gaitasuna du. Esan nahi dut, politikoki zuzena ez den guztia irentsi, asimilatu eta kakatan bota duela dagoeneko gizarteak, eta politikariek eta mundu guztiak. Hori da bere mekanismoa traba egiten duen guztia gastatu, ajatu eta eroso bilakatzeko. Zerbait jan, liseriketa egin eta gonbito-ka bota ondoren jada ez da existitzen, ez du trabarik egiten. Nik uste dut horretatik asko dagoela artean. Artista asko saiatu direla hausturak egiten eta irentsiak izan direla. Santiago Sierra Veneziako biurtekora eraman zutenean oso-oso lan kritikoa egin zuen Espainiako immigrazio politikari buruz, baina sistemak irentsi egin zuen. Ihesbiderik badagoen? Baietz pentsatzen jarraitu nahi dut”.



marrazteak. Igual “gaizki” marrazte horretan zure adierazteko era bilatuko duzu, zure plazera bilatuko duzu. Baina nola lortuko dugu halakorik ematen ditugun kontsignak “ez zaitetz marratik atera” bezalakoak badira? Mesedez! Oraindik XVII. mendean gaudela ematen du! Irakasuntzak esperientzietatik

lan egitea baino. Irudia beti da tranpa. Irudia da, erreprodukzioa da, tranpa da. Eta oso polita da tranparekin lan egitea ere. Baina kirola egiteko nire era da eskultura. Niri zailtasun handia sortzen dit 6 metroko pieza batekin lan egiteak. Ze nik 1'63 zm eta 57 kilo dauzkat. Ahalegin fisikoa bera ere asko gustatzen zait. Grina hori, piezarekin parez pareko borroka hori. Ordenagailuarekin lan egitean buruak egiten du lana, baina ez gorputzak. Eta prozesuan gorputza sartzen denean aurreikusi gabeko beste faktore batzuk sortzen dira eskulturaren eraikuntza prozesuan. Irudi batekin lan egitean ideiatik amaierako emaitzara dagoen bidea askoz ere zuzenagoa da. Eskulturarekin lan egiten duzunean, ideia batetik hasi arren, garrantzia prozesuak dauka. Bideak. Bidaiak. Itakak.

Zer egiten duzu eskultura zaharrekin?

Arazo handia da hori. Askotan bota egiten ditut. Haiekiko maitemina amaitzen zaidanean, bota. Badakit iraganean zerbait ikasteko balio izan zidatela, baina badakit ez ditudala sekula berriro erakutsiko. Orduan, bota. Eta ez dit batere penarik ematen, e? Rotaflexa hartu, zatitu eta izugarritzko arintasuna sentitzen dut. Eta oraindik balio didatela sentitzen badut, ba, gorde egiten ditut, eta hori oso arazo potoloa da. Espazioa, berriro. Eta dirua. Ze gizarte honetan espazioak dirua balio du. Eskultura ikasketa prozesua da, eta prozesu hori amaitzen denean, eskultura hori lasai bota dezaket.

Ikastetxeetan heziketa artistiko, estetiko egokia ematen da?

Ez. Eduki daitezkeen hutsune guztiak ditu. Hasteko, irakasleak ez dira artistak. Beraz, gaizki hasi gara. Gainera, artea zerbait pertsonala eta hezitzailea da, eta ikastetxeetan ez da hala bizitzen. Esaten da: “Marrazten ikasi behar duzu”. Joder! Baina igual ez du inporta “ondo”

bideratua behar luke. Esperientzietatik ikasten baitugu. Oteizak esaten zuen “zerbait ikusten badut intuitu egiten dut; zerbait egiten badut, ulertu egiten dut”. Ez digute horrela erakusten. Oraindik laminak kopiatu arazten dizkiete ikasleei! Ezin dut ulertu. Zer ekarriko dio inori beste baten marrazkia kopiatzeak? Ezer ez. Absurdua da. Errotik ari gara gaizki. Dena emaitzari begira egiten dugu, eta emaitza ez da garrantzitsua eta gutxiago ikastetxe batean, plastikan. Baina gizarte honetan dena dago emaitzara bideratua, eta emaitza ez bada polita, emaitza ez bada zure aitak frigorifikokoan pegatzeko modukoa, ez du balio. Ez digute mundu sentsiblea lantzen irakasten.

Zertan ari zara orain?

Orain, berriz hasten, bi hilabetez geldirik egon baino. Azken erakusketa eta gero erabaki nuen atsedena behar nuela. Gauzak ixteko beharra. Erritmo berean jarraituz gero ez da motxila husten, eta aurreko proiektuetako

gauza asko eramaten ditugu nahi gabe arrastaka. Orain argazki serie batekin ari naiz lanean, eta margotzen ere bai, gero argazki batzuetan aterako diren margo batzuk. Gauza asko pilatzearekin du zerikusia argazki serie berriak. Sintesi prozesuan sartuta nago: lehen, piezetan gauza pila bat nahasteko ohitura

neukan, eta orain hori dena garbitu nahi dut, eta argi goa, isilagoa izan. Eta aluminioan egingo ditudan beste pare bat pieza fundizioan dauzkat. Horiek ere zentzu berean: normalean material askoren muntaia izaten da nire lana, nahasketa askokoa, baina hori sintetizatzeke era molde bat egin eta aluminioan funditzea izan da, nolabait hasierako amalgama eta aniztasun hori guztia gauza batean urteza. Garbitze prozesuan nago. ■

“Gauza asko utzi ditut eta utzi beharko ditut bidean. Agian, amatasuna edo bikote harremanak ere bai... baina nik hau nahi dut. Nik artea nahi dut”

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.